



“Euskararen telefonoa itxaropenaren telefonoa da”

Garbiñe Petriati

Bista txorrotxa behar baitu
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko presidentak.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Josu Santesteban

Behatokiren bat aukeratzeko hasita, ikusmira eskasekoa aukeratu ez ote duzun...

Ikusmen zorrotzeko behatokia da, haatik. Herritarren bizipenetan oinarritua. Analizatzen duen errealitate hori bai da eskasa eta gabeziaz beterikoa.

Esadazu zer ikusten den Behatokitik.

En castellano, por favor edota *vous êtes obligé d'utiliser le français* entzun behar izan duen euskalduna. Hizkuntza bat galtzen da dakitenek ezin dutelako erabili, elebakarrek hizkuntza inposatzen dutelako.

Behatokia Euskararen telefonoa soilik ote den galdetuko banizu...

Baiezkorik ezin esan. Zer dira hizkuntza-eskubideak? Zein da beste hizkuntza gutxiagotueta egoera? Zer egin ahal dugu elkarrekin? Esparru horiek ere lantzen ditu.

Baina Euskararen telefonoa ez da, preseski, itxaropenaren telefonoa.

Euskararen telefonoa itxaropenaren telefonoa da. Herritarrak badaki ahal duen guztia egingo duela urraketa egoera gainditzeko. Kexak jarritz, emaitzak lortzen dira eta eragin egiten da.

Lagun erdaldun elebakar bati ez omen diote erdaraz atenditu. Nora deituko du gajoak?

Hori zientzia fikzioa da.

Nola? Erdaldun elebakarrek berdin ordaintzen dituzte zergak!

Hizkuntza politika egiten dena eta egiten ez dena da. Gaur egun herritar guztion zergekin diru gehiago bideratzen da erdarak indartzera euskararen normalizaziora baino.

Baina hizkuntzek ez, hiztunek dituzte eskubideak.

Eskubideak pertsonok ditugu. Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Oinarritzko giza eskubideak urratzen zaizkigu euskaldunoi. Ez diote hizkuntzari erasotzen, hizkuntza horretan bizitzeko eskubidea duten pertsonari eta komunitateari baizik.

Eta zer da garrantzitsuago: medikuak sendatzea edo euskaraz egitea?

Medikuak euskaraz sendatzea nahi dut. Kito! Kordobako Mediku Elkargoak dio: “Pazientea eta medikuaren arteko harremanean, komunikazioa da funtsezko osagaia”. Ezin egoki sendatu ulertzen ez zaituen pertsona batek.

Ze tema euskaldunok euskararekin!

Ez da tema kontua, eskubidea da auzia. Tematurik daude erdaldunak euskararekin. Hobe da jakitea ez jakitea baino. Euskal Herrian, hizkuntza dela eta, ez dago herritar guztientzat aukera berdintasunik. ■

